

EUNEIZ, TEKNOLOGIA BERRIEN, KIROLAREN ETA OSASUNAREN UNIBERTSITATEA, UNIBERTSITATE PRIBATU GISA EZAGUTZEKO EUNEIZ 2018 S.A.-k AURKEZTUTAKO MEMORIARI BURUZKO EBALUAZIO TXOSTENA.

Maiatzaren 29ko 402/2015 errege dekretuak, unibertsitateak eta unibertsitate-zentroak sortu, ezagutu, baimendu eta akreditatzeari buruzkoak, 6.2. artikulua a) atalean xedatutakoaren arabera, Unibasq-ek- Euskal Unibertsitate Sistemaren Kalitate Agentziak- du, Euskal Autonomia Erkidegoan unibertsitate-kalitatea ebaluatzeko kanpo organoa den aldetik, unibertsitate berri bat sortzeko aurkeztutako titulazioak garatzeko planaren ardura.

Unibasq-ren ebaluazio-batzordeak,- Unibasq-eren Aholku Batzordeak 2018ko uztailaren 4an egindako bileran onartu zen ebaluazio-batzorde horren osaketa,- ebaluazio-txosten hau egin du, Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailak 2019ko urtarrilaren 14an bidalitako informazioan oinarrituta.

Txosten honen egitura egokitzen da eta hitzez hitz azaltzen ditu maiatzaren 29ko 420/2015 errege dekretuak eta Euskal Unibertsitate Sistemaren 3/2004 legeak unibertsitateak sortu, ezagutu eta baimentzeko exijitzen dituzten baldintzak.

1. DIMITSIOA. Titulazio ofizialen gutxienezko eskaintza akademiko bat izatea.

Guztira gradu eta masterreko zortzi titulu ofizial, gutxienez, lortzera bideratutako irakaskuntzen eskaintza bat izan beharko dute unibertsitateek. Eskaintza akademiko horrek koherentea izan beharko du, ezagutza-arlo bakoitzean eta globalitatean.

Ezagutza-arlo bakoitzeko titulazioak garatzeko plan bat aurkeztu behar du unibertsitateak eta plan horrek ondorengo puntuak, gutxienez, azaldu beharko ditu: titulazioen zerrenda, kurtsoz kurtso eskaini nahi diren unibertsitate-plazen guztizko kopuruaren aurreikuspena; aipatutako jarduerak hasiko diren ikasturtea, irakaskuntzak erabat ezartzeko eta zentroak funtzionamenduan jartzeko egutegia eta irakaskuntza horiek garatzeko dauden bitartekoak.

Halaber, urriaren 29ko 1393/2007 errege dekretuak, unibertsitate-irakaskuntza ofizialen antolamendua ezartzen duenak, aurreikusten dituen ikasketa-planak egiaztatzeko eta akreditatzeko prozeduraren menpe egongo da titulazio bakoitza banaka ezartzeko prozesua.

BALORAZIOA:

Ez dira maiatzaren 29ko 420/2015 errege dekretuak, unibertsitateak eta unibertsitate-zentroak sortu, ezagutu, baimendu eta akreditatzeari buruzkoak, eta 3/2004 legeak, Euskal Unibertsitate Sistemarenak, ezartzen dituzten baldintzak behar adina betetzen.

DIMENTSIOAREN BALORAZIOA JUSTIFIKATZEA:

Lau ezagutza-arlo desberdinetan banatuta dauden 8 titulu, 5 gradu eta 3 master eskaintzea proposatzen da. Gainera, gradu bikoitz baten eskaintza sartzen da eta, eskaintza horri esker, izango da eskaintako graduetak bi aldi berean egiteko aukera.

Bi fakultatetan emango dira, Osasun Zientzien fakultatean eta Teknologia Berria Interaktiboen fakultatea (batzuetan honi Eduki Digital Interaktiboen fakultatea esaten zaion arren, Arte Humanitateen eremuko prestakuntza-eskaintzaren 5. kapituluaren esate baterako, akats batengatik seguru asko).

Memorian euskal unibertsitate-sisteman gaur dagoen eskaintza aztertzen da. Gorputz Jardueraren eta Kirolaren Zientzietako gradua EHUn eta Deustuko Unibertsitatean ematen da. Fisioterapiako gradua EHUn egin daiteke. Gaur egun eskaera argi eta garbi eskaintza baino handiagoa dela adierazten dute. Eduki Digitalen Interaktiboetako eta Bideo Jokoetarako eta Joko Aplikatueterako Arte Sormeneko graduek ez du euskal unibertsitate-sisteman baliokiderik dutenik ematen, beste herrialde batean (AEB) indarrean dagoen hezkuntza-sistema baten arabera Bilbao Digipen-en dagoeneko ematen diren arren. Musika Ekoizpeneko graduari dagokionez, arlo horretan MUSIKENEK unibertsitateaz kanpoko prestakuntza-eskaintza bat duela adierazten da. Unibertsitate-masterrei dagokionez, antzeko eskaintzarik ez dagoela adierazten da, gaur egun euskal unibertsitate-sisteman titulu mota horietarako plazen eskaintza eskatzen dena baino handiagoa dela nabarmentzea interesgarria den arren. Osasun Zientzien fakultatean eskainiko liratekeen bi masterren egitura presentzia erdikoa izango litzatekeela adierazten da memorian, baina ez da gehiago zehazten.

ETitulu bakoitzaren planteamendua sartuta dagoen ezagutza-arloarekin bat dator, eskaintako titulu guztien koherentzia argia ikusten ez den arren. Osasun Zientzien arloan eskaintzen diren tituluek lotura zuzena dute kirolaren munduarekin eta garapen profesionaleko eremu horretarako eskaintza nahiko osatu bat direla interpreta daiteke, ezagutza-arloan normalean lantzen diren gaitasunen zati txiki bat besterik hartzen ez duten arren.

Beste lau tituluak, neurri handiagoan edo txikiagoan, eduki digitalen diseinatze, garapen eta komertzializazioarekin dute zerikusia, eremu horretan gaitasunak eskuratu nahi dituztenentzat eskaintza oso bat direla esaterik ez dagoen arren. Adibidez, edukiak diseinatzearen eremuan, musika-ekoizpena eta bideo-jokoen eta joko interaktiboen eremura fokalizatuta daude tituluak. Musika-ekoizpenarekin eta bideo-jokoekin eta joko aplikatuekin zerikusia duten lau titulu horien kasuan, lauetan errepikatzen den garatze-planak ez du Arte eta Humanitateak (2), Ingeniaritza eta Arkitektura (1) eta Gizarte Zientziak eta Zientzia Juridikoak (1) ezagutza-arloetara atxikitzea justifikatzen.



Horregatik, elkarren artean itxuraz harremanik ez duten bi titulazio-multzo eskaintzen dira. Bi titulazio horiek ez dira eskaintza oso bat kokatuta dauden inolako adarretan eta, dirudienez, ez daude proposatzen dituen gizartearen bereizgarri diren zenbait indargune edo aktibo aprobetxatzeari lotuta (adibidez, nabarmentzeko modukoa den tradizio edo esperientzia bati). Horiek guztiak baliabide fisikoak eta giza baliabideak, merkatuan libreki sartzeko modukoak, eskuratu edo kontratatzearen menpe daude eta, horregatik, dagoeneko ezarrita dagoen beste edozein erakundek edo unibertsitatek inolako arazorik gabe berregin dezakeen eskaintza bat da.

UNEIZen erreferenteak ENTI- Bartzelonako Unibertsitateari atxikita dagoen zentroa- eta EUSES- Gironako Unibertsitateari atxikitako zentroa- direla adierazten da, bi unibertsitate-eskola horietan hasiera eman baitzitzaion EUNEIZ sortzeko prozesuari. Emandako azalpenetik ondoriozta daitekeenez, bi zentro horien prestakuntza-eskaintza, irakaskuntza-antolaketa eta ikerketa-jarduera izan dira EUNEIZen proposamenaren oinarri, berorien tituluak eta eskatzen den unibertsitateak programatzen dituenak oso antzekoak direla kontuan hartuta, baina, baldin badago, bi zentro horien eta EUNEIZen arteko harremana zein den ez da behar adina azaltzen. Proposatutako eskaintzak zerikusi handiagoa du unibertsitate bati atxikitako zentro batekin, unibertsitate batekin baino. Izan ere, proiektua lotuta dagoen ENTI eta EUSES zentroak dagoeneko finkatuta dauden unibertsitateei atxikitako zentroak dira.

Emandako informazioan oinarritzko irakasgaiaren eta derrigorrezko irakasgaiaren arteko bereizketa egiten da, baina oinarritzko prestakuntzari lotutakoek derrigorrezkoak izan beharko lukete.

Sartu berrientzako plazen kopurua 40koa da graduatarako, 60 plaza eskaintzen dituen Fisioterapiako gradua eta 25 eskaintzen dituen Gorputz Jardueraren eta Kirolaren Zientzietako gradu bikoitza izan ezik. Hiru masterretan sartu berrientzako plazen kopurua 25ekoa da. Laburpen-taulan sartu berrientzako gradu bikoitzaren plazen kopurua 15ekoa da.

Definituta dago jarduera akademikoak ematen hasiko den ikasturtea, baita titulazioak ondorengo lau urteetan garatzeko prozesua ere. Aurreikuspenen arabera, 2019-2020ko ikasturtean lau gradu eta master bat ematen hasiko dira, 2020-21eko ikasturtean beste gradu eta beste master bati hasiera ematea proposatzen da, eta 2021-22ko ikasturtean gradu bikoitz batekin eta beste master batekin osatu nahi da eskaintza. Ikasturte horretan aurkeztutako plana osatutzat joko da. Memoriak aurreikusten duenaren arabera, ez dira inongo arlotan irakaskuntza gehiago gauzatuko, ezta fakultate berriak sortu ere.

Legeriaren arabera, titulazio bakoitza ezartzeko prozesua egiaztatu eta kreditatzeko prozeduraren menpe dago. Martxan jarriko diren irakaskuntzek aldeko oniritziarekin egiaztatuta izango direla pentsatzeko aukera ematen duten titulazioak izango dituztela erreferentzia ziurtatu behar da. Arestian adierazi denez, unibertsitate katalan desberdinei atxikita dauden EUSES eta ENTI instituzioek eskaintzen dituzten tituluak hartu ditu, graduak diseinatzeko erreferentetzat, unibertsitateak. Instituzio horiek aldeko oniritziarekin egiaztatu diren graduak kurtsoak ematen dituzte eta, horregatik, erreferente egokia izan daitezke. Masterren kasuan, zentroak berak hartu

dira ere erreferentziatzen baina, kasu honetan, emandako masterretako ikastaroak ez daude egiaztatuta. EUSES eta ENTI kenduta, ez dira masterrak diseinatzeko beste erreferente batzuk erabiltzen, datozen bost urteetan martxan jartzea proposatzen diren zortzi titulazio ofizialak azkenean titulazio egiaztatuak eta kreditatuak izango direla ziurtatzeko. Masterrei buruzko memorian emandako informazioak ez du master horien maila MECESek ikasketa mota horietarako ezartzen duen mailarekin bat datorrela argi esateko aukerarik ematen.





2. DIMENTSIOA Ikerketa-programazio egoki bat izatea.

Ikerketa-jarduera gauzatzeko prozesua sustatu beharko dute unibertsitateek. Horiek horrela, ikerketa-jardueraren hainbat urtetako programazio bat aurkeztu beharko da unibertsitate berria integratuko duten titulazio ofizialekin zerikusia duten arlo zientifikoetan. Arlo zientifiko horiek, besteak beste, ondorengo estrategiak sartu beharko dituzte: talentu zientifikoa sartzeko, azpiegitura zientifiko eta teknikoak eskuratu, erabili edota eraikitzeke, eskualde, nazio eta nazioarte eremuko ikerketa-proiektu lehiakorretan parte hartzeko eta I + G + i-ren arloan produkzio-sistemarekin lankidetzan aritzeko. Jarduera horien ebaluazioan ezarriko diren adierazleak sartuko dira.

BALORAZIOA
Ez dira behar adina betetzen maiatzaren 29ko 49/2015 errege deketuak, unibertsitateak eta unibertsitate-zentroak sortu, ezagutu, baimendu eta kreditatzeari buruzkoak, eta 3/2004 legeak, Euskal Unibertsitate Sistemarenak, ezartzen dituzten baldintzak.
DIMENTSIOAREN BALORAZIOA JUSTIFIKATZEA:

Ikerketa-jardueraren programazio bat aurkezten du unibertsitateak eta programazio horrek ikerketa garatu eta finkatzea, ikerketa-jarduera eremu desberdinetan gauzatzeko erreferentzia-markoen garapena eta oinarrizko printzipio batzuk ditu oinarri.

Garatzeko eta finkatzeko estrategiak identifikatzeko hiru elementu hartu direla kontuan adierazten da. Haietako bat instituzio berriaren lidergo akademikoaren esperientzia da (lidergoaren eta ikerketa kudeatzeko karrera profesional luze batekin ...). Alderdi hori ezin da baloratu, ez baitira pertsonal ikertzailearen curriculumak aurkezten.

Aurkeztutako alderdi orokorrekin batera ez dago estrategia horiek EUNEIZ unibertsitatean nola aplikatuko diren baloratu ahal izateko moduko ikerketa-plan konkreturik aurkeztu. Plan horrek ondo definitutako errealitate bat azaldu beharko luke, osasunaren eta teknologia interaktiboaren eremuetan egingo liratekeen jardueretan oinarritua. Ondorengo alderdien hutsunea ere ikusten da: ikerketa-arlo kritikoaren identifikazioa eta ikerketan liderrak izango diren figura akademiko bat edo gehiago identifikatzea, epe motzean kanpo finantzazioa lortu, maila oneko argitalpen zientifikoak sortu eta beste zentro batzuekin ikerketa-proiektuetan lankidetzan jardun ahal izateko moduan. Ikerketarako lau urteko plan bat ezartzeko erabili beharreko metodologia deskribatzen du memoriak eta klaustroak egingo duela adierazten du, lidergoa konkretatu gabe. Hala ere, ez da ikerketa-taldeak integratuko dituen pertsonal ikertzailearen perfila deskribatzen. Oro har, ikerketa garatzeko plana hasi berriegia da.

Egindako planteamenduan puntu ahul batzuk ikusten dira:

- Kirol-osasunaren arloan jartzen du fokua. Ezarritako ikerketa-ildoak garatzeko teknologia digitalen arloko gaitasunak izatea beharrezkoa dela ematen duen arren, ez du eduki digitalen garapenari, are gutxiago musika-ekoizpenari, zuzenean lotuta dagoen ikerketa-plan bat dagoenik ematen. Horregatik, ikerketa-plana bakarrik eskainitako irakaskuntza-eskaintzaren % 50era lotuta dagoela ematen du.

- Helburu handinahiak planteatzen diren arren, ez dira helburu horiek egiteko modukoak direla esateko ebidentziak aurkezten. Finantzazio lehiakorrera sartzea zaila da, nolabaiteko ikerketa-oinarririk eta ibilbiderik izan ezean. Ildo horretan, ikerketa-laguntzan oinarritutako pertsonalaren kontratazioa eta jarraipena aipatzen diren arren, ez dago pertsonalak ikerketaren arloan merezimenduak dituela esan ahal izateko ebidentziarik, hots, ezin da planifikatutako denboran ikerketa-talde produktiboak, fondo lehiakorrak eskuratzeko gaitasunarekin, eratuko direnik esan.
- Pixka bat anbigua da talentua atzemateari edo ikerketa-karrera garatzeari buruz eman den informazioa. Izan ere, ez da kontrastatzeko moduko ikertzeko gaitasunak izango dituzten irakasleen talde bat nola ziurtatuko den zehazten.
- Aurreikusten denaren arabera, denbora osoan ari izango diren irakasleen dedikazioa aurrez aurreko 324-360 klase-ordukoa izango da, eta horrek ikerketari eskaintzeko geratuko zaien denbora oso murrizta izango dela pentsatzera garamatza.
- Ikerketa-aro kritikoen definizio faltak zailago egiten du oso orokorki deskribatzen diren azpiegitura espezifikokoak egokiak diren ebaluatze prozesua.
- Jardueren kopuru zabala egitea planteatzen dute, eta haietako batzuk 2018/19ko ikasturtean hasteko asmoa izatea deigarri egiten zaigu. Jarduera haietako askok barne finantzazioa izan beharko lukete. Ez du urte horien aurrekontuetan sartutako zenbatekoak (100k, 136k, 209k, 268k eta 282k euro hurrenez hurren) jarduera horiek aurrera eramateko nahiko izango direnik ematen. Aurkezten duten emaitzen kontuan, zenbateko horiek horrela desglosatzen dituzte: % 85 pertsonal ikertzailearen kostua eta % 15 materialen kostua.
- Kronologiak ez datoz bat hainbat urtetako (lau urtetako) programazioan, 2018-2023ko aldiaz ari baita zenbait kasuetan, eta 2019-2023koaz beste batzuetan.



3. DIMENTSIOA Behar adina pertsonal irakasle eta ikertzaile, behar den kualifikazioarekin, izatea.

Unibertsitate-irakaskuntza ofizialetan matrikulatutako ikasleen guztizko kopuruari begira 1/25 erlazioa aplikatzearen ondoriozko kopurua baino txikiagoa ezin izango da unibertsitate bakoitzeko pertsonal irakasle eta ikertzailearen guztizko kopurua.

Denbora osoko dedikazio-erregimenean, edo haren denbora partzialeko baliokidean, zenbatutako pertsonal irakasle eta ikertzaileari buruzkoa izango da ratio hori. Unibertsitateak irakaskuntzak presentziarik gabeko modalitatean ematen baditu, ratioa aldatu ahal izango da eta 1/50ekoa eta 1/100ekoa izan ahal izango da, titulazioen esperientzaren mailaren eta presentzia erdia handiagoa edo txikiagoa izatearen arabera.

Ondorengo kideek osatuko dute, gutxienez, irakaskuntza- eta ikerketa-jardueretan ari izango diren unibertsitateetako pertsonala:

- a) Doktoeen % berrogeita hamar batek, Graduoko titulu bat lortzera bideratutako irakaskuntzen multzorako.
- b) Un setenta por ciento de doctores para el conjunto de enseñanzas correspondientes a la obtención de un título de Máster./Doktoeen ehuneko hirurogeita hamar batek, Masterreko titulu bat lortze aldera bideratutako irakaskuntzen multzorako.
- c) Doktoretza-irakaskuntzak ematearen ardura duten unibertsitateko irakasle guztiek doktore-titulua izan beharko dute.

Ondorio horietarako, irakasleen guztizko kopurua konputatzeko, denbora osoko dedikazioa dutenen baliokidea hartu beharko da kontuan. Halaber, eta abenduaren 21eko 6/2001 lege organikoak hamabigarren xedapen gehigarrian zehazten duenaren arabera, unibertsitateen eta osasun-instituzioen arteko itunetan zehazten den irakasle elkartuen plazen kopurua ez da artikulua honetan adierazitako ehunekoaren ondorioetarako kontuan hartuko.

Doktoerearen titulua ez duten irakasleek lizentziatuaren, ingeniariaren, graduatuaren edo baliokideren bat, gutxienez, izan beharko dute, egin beharreko irakaskuntza-jardueraren ezagutza-arloetan Euskadiko Unibertsitate Kontseiluak diplomadunaren, arkitekto teknikoaren edo ingeniari teknikoaren tituluak nahiko direla, oro har, zehaztu duen kasuetan izan ezik. Egoera horretan, eta arlo espezifiko horietan irakasteko, irakasleek aipatutako azken tituluetakoren bat izatea nahiko izango da.

Irakasleen guztizkoaren ehuneko hirurogeia, gutxienez, haien funtzioetan denbora osoko dedikazio-erregimenean aritzea bermatuko dute unibertsitateek.

Baldintza horiek egiaztatzeko, jardueraren hasieran pertsonal irakaslearen eta ikertzailearen plantila aurkeztu beharko dute unibertsitateek. Halaber, plantila hori urtean nola areagotuko den aurreikusi beharko dute, behar diren irakaskuntzak guztiz ezarri arte.

BALORAZIOA:

Ez dira behar adina betetzen maiatzaren 29ko 420/2015 errege deketuak, unibertsitateak eta unibertsitate-zentroak sortu, ezagutu, baimendu eta akreditatzeari buruzkoak, eta Euskal Unibertsitate Sistemaren 3/2004 legeak ezartzen dituzten baldintza.

DIMENTSIOA BALORATZEAREN JUSTIFIKAZIOA:

Pertsonal irakaslearen eta ikertzailearen plantila, jardueraren hasierakoak eta geroago sartuko direnak, aurkezten da memorian. Pertsonal irakasle eta ikertzailearen kategoria akademikoari buruzko informazioa ematen da, jardueraren hasieran eta urtean izango duten areagotzea, titulazio guztiak erabat ezarri arte.

Aurkeztutako zerrendetan izena, titulu akademikoa, doktoreak diren edo ez eta, egiaztatutako doktoreak badira, instituzioan duten kategoria (taldea eta maila) eta ezagutza-arloa agertzen dira. Bitxia da planteatzen diren kategoria eta antolaketa- eta funtzionamendu-arauek 39. artikuluan adierazten direnak oso desberdinak direla ikustea. Pertsonal irakasle eta ikertzailearen kategoria akademikoa aipatzean, doktoreen eta doktore ez direnen arteko bereizketa egiten da eta, doktoreen artean, akreditatuak eta akreditatuta ez daudenak bereizten dira. Ez da, ordea, zein kategoria akademikotarako akreditatuta dauden edo akreditatuta egongo diren adierazten.

Bermatzen duten irakasleen gutxienezko kopurua hau da: 40koa (2019/20ko ikasturtean), 88koa (2020/21ekoan), 135koa (2021/22koan), 173koa (2021/22koan) eta 180koa ikasturte horretatik aurrera. Urte horietan denbora osoko baliokideen ehunekoa % 30etik % 40ra artekoa izango da. Tituluen arabera desagregatutako datuak eskaintzen dira eta, datu horietan, denbora osoko eta denbora partzialeko pertsonala bereizten dira. Taula horietatik ondoriozta daitekeenez, denbora osoko pertsonala ez da irakasleen guztizkoaren % 60 izatera iritsiko.

Denbora osoko doktoreen kopurua % 12 ingurukoa da, eta hori ez da planteatzen duten ikerketa-programa aurrera eramateko kopuru egokia. Memoriak ikerketan parte har lezaketen irakasleei buruzko informazioa ematen du. Irakasle guztiak ez direla doktoreak ikusten da. Zein ikerketa-arlotan egingo duten lan azaltzen ez dutenez, zaila da egokiak diren edo ez diren baloratzea. Gainera, antolaketa- eta funtzionamendu-arauek 60.b artikuluan eta EUNEIZeko ikasleen araudiak 2.12. artikuluan xedatutakoaren arabera, irakaskuntza Euskal Autonomia Erkidegoko edozein hizkuntza ofizialetan jasotzeko eskubidea dute ikasleek eta horrek irakasleen kopurua areagotu behar izatea ekar dezake. Horregatik, pertsonal irakasle eta ikertzailearen hizkuntz gaitasunari eta planifikazioari, aurreikusitako titulazioak zein hizkuntzatan emango diren jakiteko, buruzko informazio gehigarria eman beharko litzateke.

Emandako informazioaren arabera, Osasun Zientzien fakultatea ezarriko den lehen urtean fakultate horretako pertsonal irakaslearen % 72 izango da doktorea; Teknologia Berri Interaktiboen kasuan, irakasleen % 61,09 fakultatea ezarriko den lehen urtean izango da doktorea. Denbora osoan ariko direnei, gradu edo masterrak emango dituztenei eta parte hartzen duten titulazioei buruzko informazioa falta dela ikusten da; curriculumei buruzko hutsunea, laburtuak izan arren, batez ere ikusten da. Haietako bakoitzak zein titulaziotan irakatsiko duen jasota agertu beharko luke, baita indarreko araudian exijitzen diren irakasle doktoreen proportzioak eta Agentziak ezarritako irizpideak betetzen direla ere.



Kasu guztietan kontratazio-proposamenak dira, baina gaur egun ez dago proposatzen duen elkartearen eta aipatutako irakasleen artean inolako loturarik eta, horregatik, ezin da lotura hori benetan gauzatuko dela bermatu.

Titulu edota ikerketa-jarduera desberdinetan titulu horiek ezarriko diren urteetan hasiko den pertsonal irakasle eta ikertzailearen zerrenda egitean, ez da aurreikusitako irakasleak zein urte konkretutan hasiko diren adierazten.



4. DIMENTSIONA Haren funtzioak betetzeko instalazio, bitarteko eta baliabide egokiak izatea.

Beren irakaskuntza- eta ikerketa-funtzioak aurrera eramateko behar dituzten azpiegitura eta bitarteko material egokiak izan beharko dituzte, gutxienez, unibertsitateek, irakaskuntza motak eta matrikulatutako ikasleen kopurua kontuan hartuta. Horretarako, baldintza funtzional egokiak bete beharko dituzte eta eman beharko dute irakaskuntza- eta ikerketa-jarduerak gauzatzeko aukera. Edonola ere, ondorengo tokiak eta ekipamendua izan beharko dituzte:

a) Irakasteko eta ikertzeko espazioak. Aurreikuspenen arabera espazio horiek aldi berean erabiliko dituzten ikasleen kopuruaren arabera zehaztuko dira haien kopurua eta azalera. Instalazioak egokiak diren edo ez baloratzeko gutxienezko moduluak jasota agertzen dira I. eranskinean.

b) Ikasteko eta ikertzeko baliabide-zentroak (CRAI). Horretarako erabiliko diren eraikinek edo zerbitzu fisiko edo birtualek, unibertsitate-liburutegiaren zerbitzua ere sartuko dutenek, eman beharko dute matrikulatutako ikasleen guztizko kopuruaren ehuneko hamar batek, gutxienez, aldi berean erabiltzeko aukera.

c) Ekipamendu informatikoa: wifi espazio sortzearen bidez sarera behar bezala konektatzea bermatuko duten gela eta zerbitzu orokorrak eta ordenagailuen kopuru egokia ikasleentzat. Halaber, irakaskuntza-baldintzetara eta baldintza zientifiko eta instituzionaletara sartzeko aukera izan beharko du, web zerbitzuen bidez, unibertsitate-erkidegoak.

Osasun Zientzien eremuko irakaskuntzen kasuan, II. eranskinean exigentzia bereziak ezartzen dira.

Edonola ere, lan-arriskuen prebentziorako baldintzak eta indarreko legeriak exijitzen dituen baldintza akustikoak eta bizi-egokitasun-baldintzak bete beharko dituzte unibertsitate-instalazioek. Halaber, indarreko legerian xedatutakoaren arabera pertsona elbarrituei sartu eta mugitzeko aukera emango dieten baldintza arkitektonikoak izan beharko dituzte.

BALORAZIOA:
Ez dira behar adina betetzen maiatzaren 29ko 420/2015 errege dekretuak, unibertsitateak eta unibertsitate-zentroak sortu, ezagutu, baimendu eta akreditatzeari buruzkoak, eta Euskal Unibertsitate Sistemaren 3/2004 legeak ezartzen dituzten baldintzak.
DIMENTSIONAREN BALORAZIOA JUSTIFIKATZEA:

Jarduerei hasiera emateko, 2.200 m² inguruko eraikin bat alokatu du unibertsitateak. Alokaturako espazioak, itxuraz, ez dira nahiko. Eraikin horretan ez da Osasun Zientzien fakultatean praktikak egiteko gelak egotea aurreikusten eta, horregatik, jardueren % 100 kanpoko espazioetan gauzatuko dira. Praktika horiek aurrera eramateko hitzarmen batzuk gaineratzen dira. Egoera honengatik, haien jarduera nagusia profesionalen prestakuntza ez den beste zentro batzuen menpe egongo da unibertsitatea. Edonola ere, praktikak emango diren zentro gehienak unibertsitatearen kapitalean, akziodun minoritario gisa, parte hartzen duten enpresenak dira.



Osasun Zientzien fakultatean 4 gela izango lirateke eta horrek bakarrik emango luke lau titulazioetako lehen kurtsoari tokia eskaintzeko aukera. Goiz eta arratsaldeetan programatuz, bigarren kurtsoak ere izango luke tokia. Aparteko taldean ematen bada, ez litzateke gradu bikoitzeko ikasleentzat tokirik izango eta, graduetako taldeei batzen bazaizkie, 85 ikasle (60 + 25) egon litezke eta ez lirateke gela handiengan (80ko edukiera) kabituko. Irakaskuntzak ezarritako diren lehen kurtsoetan Salburua eraikinean, Buesa Arena pabilioian eta Bakh-n aurreikusten diren behin-behineko baliabideek ez dute, musika-ekoizpenari eta bideo-jokoei lotutako ikasketen kasuan, irakaskuntza- eta ikerketa-jarduerak era normalean gauzatuko direla bermatzen. Ez dira, matrikulatuko diren ikasleen kopurua aurreikustearen eta irakaskuntza horien espezifikotasunaren arabera, dauden baliabideak kuantifikatzen.

Zenbat instalazio egongo diren eskura ez da memorian argi geratzen. EUNEIZ proiektua kokatzeko puntuari buruzko I. kapituluaren ondorengoa adierazten da: “Salburua eraikin enblematikoan kokatuta egongo da etorkizuneko unibertsitatea ... Halaber, EUNEIZen instalazioek 4500 metro karratu hartuko dituzte Deportivo Alaves klubaren etorkizuneko kirol-hirian ... ; hots, etorkizunean biak erabiliko direla aditzera ematen da. Bestalde, azpiegitura eta baliabide materialei buruzko V. kapituluaren hau adierazten da: Jarduera akademikoak hasten direnerako bukatuta egongo ez diren unibertsitate-eraikinak izango ditu EUNEIZek, eta Salburua eraikina alokatzeko kontratu bat egin da, lehen bi urteetarako. Errealitatean, V. kapituluaren bi taula erakusten dira eta, antza denez, eraikin berrikoari eta Salburuako eraikinari dagozkie. Informazio bera azpiegitura eta baliabide materialei buruzko 7. atalean ere sartzen da. Dena den, bideragarritasunari eta negozio-planari buruzko 8. atalean Salburua eraikina hartzen da kontuan.

Oinarrizko proiektuaren eta aurreikusitako eraikina gauzatzeko proiektuaren existentzia ez da jasota agertzen. Ildo horretan, proiektu hori bi urteko epean, 19/20ko ikasturtetik aurrera, izango den jakiterik ez dago.

Informatika-gelak, bai alokatutako espazioetan, bai eraikitzea aurreikusten den eraikinean, talde handi bat hartzeko modukoa ez den edukiera izango luke (46 edo 40 plaza, eta 60 ikasle berri aurreikusten dira titulazio batean).

Ikerketa-guneak ere ez dira argi deskribatzen memorian eta hau unibertsitatearen ikerketa-proiektua egoera hasiberrian dagoela adierazten duen beste zantzu bat da.



5. DIMENTSIOA. Zerbitzua emango dela eta zerbitzu horren jarduerak jarraituko dutela bermatzea.

Programazioetan ezarritako helburu akademikoak eta ikerketa-helburuak lortzeko behar den denboran jarduerak jarraituko dutela bermatu beharko dute unibertsitateak. Horretarako, unibertsitate publikoak sortzeko edo unibertsitate pribatuak ezagutzeko, ondorengo baldintzak bete beharko dira:

a) Ekonomikoki finantzatuta izango direla segurtatzeko bermeak aurkeztu beharko dituzte unibertsitate pribatuek. Berme horiek eskainitako tituluen eta matrikulatutako ikasleen kopuruaren arabera izango dira eta irakaskuntza- eskaintzaren arabera kalkulatuko dira. Halaber, bideragarritasun- eta itxiera-plan bat ere aurkeztu beharko dute, jarduera bideraezina izan daitekeela kontuan hartuta.

b) Unibertsitateak eta haren zentro bakoitzak gutxienezko aldi batean funtzionatzen jarraitzeko konpromisoa, aldi horretan unibertsitate horretan ikasketak hasi dituzten ikasleek, behar bezalako aprobetxamendu akademikoa izan badute, ikasketa horiek bukatzeko aukera izan dezaten. Horiek horrela, ikasle horiek ikasketak bukatuko dituztela bermatzeko mekanismoak aurreikusi beharko dituzte unibertsitateek, ematen diren titulazioetakoren bat, bai unibertsitateak berak horrela erabaki duelako, bai tituluaren egiaztatzea berritzen ez delako, desagertzen den kasuetan.

Atal honetan Euskal Unibertsitate Sistemaren 3/2004 legeak 108. artikuluan publikoak ez diren unibertsitateentzat exijitzen duena hartu behar da kontuan: *“unibertsitatea sortzeko, hiru milioi eurotik beherakoa ezin izango den finantza-berme bat eskatuko da. Sustatzailea merkataritza-elkarte bat bada, ez da bermea eman beharko, eratze-eskrituran agertzen den hasierako kapital soziala hiru milioi eurotik beherakoa ez bada eta eskritura horretan bazkide bakoitzaren partizipazioa jasota agertzen bada.*

Hasieran ordaindutako kapital soziala ezin izango da guztizkoaren % 50 baino txikiagoa izan eta, edonola ere, hasierako jarduerak adosten diren terminoetan aurrera eramateko behar dena “.

BALORAZIOA:

Oro har betetzen dira maiatzaren 29ko 420/2015 errege deketuak, unibertsitateak eta unibertsitate-zentroak sortu, ezagutu, baimendu eta akreditatzeari buruzkoak, eta Euskal Unibertsitate Sistemaren 3/2004 legeak ezartzen dituzten baldintzak.

DIMENTSIOA BALORATZEAREN JUSTIFIKAZIOA:

Proiektuaren finantza-bideragarritasunari buruz KPMGk egindako azterketa bat aurkezten da. Azterketa bat zuzen planteatuta dago eta ikerketa mota hauetan normalean kontuan hartzen diren alderdi nagusiak azaltzen ditu; dena den, muga batzuk ikusten dira aplikatzen den testuinguru espezifikoan:

- Txostenean bertan zehazten denez, analisia egiteko funtsezko informazioak zuzendaritzak antzeko proiektuetan duen esperientzia du, neurri handi batean, oinarri. Ildo horretan, nahiko hipotesi baikorretatik abiatzen da, eskainitako plaza guztiak betetzeari begira.



- Ikasle gehiago egotearen arabera areagotuko diren teknologian eta zenbait hornikuntzatan egin beharreko gastu batzuk agertzen dira, baina ez da eskurapen berriak, alokairuak edo amortizazioak diren argi geratzen.
- Ez dago unibertsitatea desagertzeko planik.
- Aurkeztutako txostenean ez da jardueren hirugarren urtean aurreikuspenen arabera izango den eraikina nola finantzatuko den jasota agertzen.
- tEuro/orduko ratio bat erabiltzen da eta oinarria eskola-orduak dira. Ez du, horretaz gain, ikerketa-lanak ere egin behar dituztela kontuan hartu denik ematen. Ikertzaileen kostua ikerketari barne mailan dedikatzen zaionaren % 85 da, eta kopuruak askoz txikiagoak dira. Ez dago argi ikerketa nola ordainduko den, irakaskuntza-orduen arabera egiten baita pertsonalaren kostua.

EUNEIZ eta zentro bakoitza gutxienezko aldi batean ez desagertzearen aldeko konpromisoa berresteko adierazpen bat aurkeztu dute. Aldi horretan unibertsitate horretan ikasten hasi diren ikasleek, behar adinako aprobetxamendu akademikoarekin ikasi badute, izango dute ikasketa horiek bukatzeko denbora eta, horretarako, behar diren mekanismoak ezarriko ditu unibertsitateak.



6. DIMENTSIOA. Antolaketa eta egitura egokia izatea.

Estatutuek edo, unibertsitate pribatuen kasuan, unibertsitatearen jarduera eta autonomia erregulatu behar dituzten antolaketa- eta funtzionamendu-arauek printzipio konstituzionalen arabekoak izan behar dute, eta katedra-, ikerketa- eta ikasteko askatasunen bidez adierazten den askatasun akademikoaren printzipioa erabat eta eraginkortasunez errespetatu eta bermatu behar dute.

Abenduaren 21eko 6/2001 lege organikoak eta unibertsitatearen arloko gainontzeko legeriak agertzen dituzten printzipioak azaldu beharko dituzte estatutuek eta antolaketa- eta funtzionamendu-arauek eta, gutxienez, ondorengo puntuak agertu beharko dituzte:

- a) Unibertsitatearen izaera, funtzioak eta eskuduntza.
 - b) Erregimen juridikoa, pertsonalaren erregimena eta ekonomia- eta finantza-erregimena.
 - c) Egitura.
 - d) Gobernu- eta ordezkaritzak-organak.
 - e) Ikasleen eskubideak eta eginbeharrak.
 - f) Unibertsitate-defendatzailea aukeratu edo izendatzeko prozedura eta haren agintaldia, dedikazioa eta funtzionatzeko erregimena nolakoak izango diren zehaztea.
 - g) Diziiplina-erregimena.
 - h) Unibertsitatea iraungitzeko edo kentzeko arrazoiak, 420/2015 errege dekretuak 13. artikuluan aipatzen duen neurri zuzentzaileen plana aurkeztu edo onartu ez izana besteak beste.
 - i) Nabarmentzat jotzen den beste edozein xedapen, betiere abenduaren 21eko 6/2001 lege organikoak eta unibertsitatearen arloko gainontzeko araudiak xedatzen duenaren kontrakoa ez bada.
- Atal honetan xedatutako baldintzak egiaztatzearen ondorioetarako, ondorengo puntuak aurkeztu beharko dituzte, jarduerak egiten hasten diren unean, unibertsitateek:
- a) Arau edo estatutuak behin-betikoz onartu arte unibertsitatearen funtzionamendua erregulatu beharko duten egitura eta antolaketa- eta funtzionamendu-arauek.
 - b) Unibertsitatearen zentroak non kokatuko diren zehaztea eta tokian-tokiko autonomia erkidegoaren lurralde eremuan kokatzea. Justifikazio-memoria ere aurkeztu beharko da eta dauden eraikin eta instalazioak, baita

irakaskuntzak guztiz ezarri arte jarduerak hasteko proiektatzen direnak ere, zeintzuk diren espezifikatu beharko da.

BALORAZIOA:

Betetzen dira maiatzaren 29ko 40/2015 errege dekretuak, unibertsitateak eta unibertsitate-zentroak sortu, ezagutu, baimendu eta akreditatzeari buruzkoak, eta Euskal Unibertsitate Sistemarenak 3/2004 legeak ezartzen dituzten baldintzak.

DIMENTSIOA BALORATZEAREN JUSTIFIKAZIOA:

Arau eta araudi desberdinak ematen dira:

- Antolaketa- eta funtzionamendu-arauak,
- Ikasleak ebaluatzeari buruzko araudia,
- Berezko irakaskuntzei buruzko araudia,
- Ikasleen araudia,
- Unibertsitate-defendatzailearen araudia.

Oro har, ohiko estandarren arabera dira eta ez dira hutsune inportanteak ikusten.

**TXOSTENAREN ONDORIOAK:**

EUNEIZ unibertsitate pribatu gisa ezagutzeko EUSTEIZ 2018. S.A.-k aurkeztu duen memoria aztertzetik ondoriozta daitekeenez, txostena KONTRAKOA da, proposamenak ez baititu behar adina betetzen maiatzaren 29ko 420/2015 errege dekretuak, unibertsitateak eta unibertsitate-zentroak sortu, ezagutu, baimendu eta kreditatzeari buruzkoak, eta Euskal Unibertsitate Sistemaren 3/2004 legeak ezarritako baldintzak, txosten honen dimentsio desberdinen balorazioetan zehazten den legez.

Vitoria-Gasteiz, 4 de abril de 2019./2019ko apirilaren 4a

MARIA EVA
FERREIRA
GARCIA

Firmado
digitalmente por
MARIA EVA
FERREIRA
GARCIA/MARIA
EVA FERREIRA
GARCIAK era
digitalean
izenpetua
Fecha/Data:
2019.04.04
12:58:39 +02'00'

Fdo./Izpta: Eva Ferreira García

Unibasq-eko Zuzendaria / Directora de Unibasq



40/2015 errege dekretuaren I. ERANSKINA

Irakaskuntza- eta ikerketa-espazioen gutxienezko moduluak.

Aurreikuspenen arabera aldi berean erabiliko dituzten ikasleen kopuruaren arabera izango dira haien kopurua eta azalera, ondorengo moduluen arabera:

a) Gelak:

40 ikaslara arte: metro bat eta berrogeita hamar zentimetro karratu ikasle bakoitzeko.

Berrogei ikasle baino gehiago: metro 1 eta hogeita bost zentimetro karratuko ikasle bakoitzeko.

b) Irakaskuntza-laborategiak: bost metro karratu irakaskuntza-talde bati esleitutako ikasleko. Modulu hori egokitu ahal izango da, ematen dituen irakaskuntza ofizialei dagozkien irakaskuntza praktikoen premien arabera. Espazio horretan aldagela eta laborategian babesteko arropak babesteko gune bat erreserbatu beharko da.

Laborategi horiek tutoretza-gela eta aretoetatik aparte egongo diren espazioak izan beharko dituzte.

c) Ikerketa-laborategiak: 10-15 metro karratu irakasle edo ikertzaile bakoitzeko. Laborategi horiek ikasleak pasatzen diren tokitik aparte egon beharko dute eta ez dira irakaskuntza-lanetarako erabili behar.

Irakatsi eta ikasteko modalitate desberdinetara egokitzeko, espazioaren eta altzarien aldetik behar den malgutasuna izan beharko dute irakatsi eta ikasteko espazioek.

Informatika- eta komunikazio-ekipo egokiak izango dituzte irakasleen bulegoek.



420/2015 ERREGE DEKRETUAREN II. ERANSKINA

Osasun Zientzien eremuko irakaskuntzetarako exigentzia bereziak.

a) Medikuntza, Erizaintza eta Fisioterapiako irakaskuntzetan ondorengo puntuak bermatu beharko dira:

1.º Ospitale bat eta Lehen Arretako hiru zentro (titularitate publiko edo pribatukoa) izan beharko dituzte, gutxienez, unibertsitateek, kontzertu batean, unibertsitate publikoen kasuan, edo hitzarmen batean, unibertsitate pribatuen kasuan, oinarrituta.

2.º Osasunaren eta unibertsitateen arloko ministerio eskudunen artean zehazten diren baldintzak (bitarteko pertsonalak eta materialak izatea) bete beharko dituzte osasun-instituzioek.

3.º Kontzertuak edo hitzarmenak kontzertatzen diren osasun-instituzioen zerbitzuak eta haiekin harremana duten unibertsitate-departamentuak edo unitateak adieraziko dituzte.

4.º Kontzertua ospitale osoari badagokio edo haren laguntza-zerbitzu edo unitate gehienak hartzen baditu, “unibertsitate-ospitale “ izena erabiliko da. Zerbitzu batzuk besterik ez badira kontzertatzen, “unibertsitateari elkartutako ospitalea “ dela esango dugu. Lehen Arretako Zentroei beste horrenbeste aplikatuko zaie.

b) Odontologiako, Albaitaritzako eta Farmaziako irakaskuntzen eta laguntza-elementuak behar dituzten osasunaren eremuko beste irakaskuntza batzuen kasuan, behar diren bitarteko klinikoak eskura daudela bermatu beharko da, bai unibertsitatekoak berekoak (Odontologiako, Podologiako eta Psikologiako unibertsitate-klinikak, albaitaritzako ospitale klinikoak ...), izan, bai laguntza-zerbitzu horiek, administrazio eskudunak egiaztatuak, dituzten instituzio publiko edo pribatuekin egindako hitzarmenen bidez.



420/2015 ERREGE DEKRETUAREN III. ERANSKINA

Unibertsitateak sortu, ezagutu eta, geroago, baimentzeko espedienteak justifikatzeko dokumentazioa.

- a) Helburu akademikoak eta irakaskuntza- eta ikerketa-jardueren programazioa agertuko dituen memoria, abenduaren 21eko 6/2001 lege organikoak 1. artikuluan xedatutakoaren arabera unibertsitatearen funtzioak beteko direla bermatzeko.
- b) 420/2015 errege dekretuak 9. artikuluan aipatzen duen jarduera egingo dela bermatzeko dokumentazioa.
- c) 420/2015 errege dekretuak 10. artikuluan xedatzen dituen antolaketa- eta funtzionamendu-baldintzak egiaztatzeko dokumentazioa.
- d) Jardueraren hasieran pertsonal irakaslearen eta ikertzailearen plantila justifikatzea, 420/2015 errege dekretuaren 7.6. artikuluan adierazten diren terminoetan.
- e) Jardueraren hasieran administrazio- eta zerbitzuetako pertsonalaren plantila justifikatzea. Halaber, plantila horrek urtean izango duen areagotzea aurreikusi beharko da, irakaskuntzak guztiz ezarri arte.
- f) Eman beharreko irakaskuntzak eta unibertsitate berriak, jarduerak hastean, izango dituen zentroen kopurua justifikatzea. Halaber, ondorengo puntuak justifikatu beharko dira: erabateko errendimendura iritsi arte kurtsoz kurtso bete nahi diren unibertsitate-plazen guztizko kopuruaren aurreikuspena, aipatutako jarduerak hasiko diren ikasturtea eta irakaskuntzak erabat ezartzeko eta zentroak funtzionamenduan jartzeko egutegia.
- g) Unibertsitate berria integratuko duten titulazio ofizialei lotutako arlo zientifikoaren helburuak eta ikerketa-programak justifikatzea. Halaber, helburu horiek beteko direla bermatuko duten egitura espezifikoak justifikatu beharko dira.
- h) Unibertsitateak bere irakaskuntza- eta ikerketa-funtzioak garatzeko behar adina azpiegitura eta bitarteko material duela justifikatzea.

Bere nortasun juridikoa dutela egiaztatu beharko dute unibertsitate pribatuek, abenduaren 21eko 6/2001 lege organikoak 2.1. artikuluan xedatutakoaren arabera.